

<b>J.A. MOGEL IKASTOLA</b>	<b>ONARTUA</b> M.I.	ESKULIBURUA	
KALITATEA KUDEATZEKO SISTEMAREN ESKULIBURUA		KGSE	10-07-01
		Ber.: 2	Orr.: 1/9

# Hezkuntza Proiektoa



## J. A. MOGEL IKASTOLA

### 0.- AURKIBIDEA

#### 1.- AURKEZPENA

- 1.1.- Ikastetxearen deskribapen fisikoa eta aipamen historikoa.
- 1.2.- Ikastetxearen zeregina.
- 1.3.- Ikastetxearen komunikazioa bideak: web orria, e.maila eta telefonoa-faxa.

#### 2.- KUDEAKETA SISTEMAREN IRISMENA. ESKEINITAKO ZERBITZUEN DESKRIBAPENA.

#### 3.- KUDEAKETA SISTEMAREN PROZESUAK.

- 3.1.- Ikastetxearen urteko plangintza.
- 3.2.- Zerbitzua eskaintzeko prozesuen deskribapena eta kontrola.
- 3.3.- Ez adostasunen kudeaketa.
- 3.4.- Dokumentazioaren eta erregistroen kudeaketa.
- 3.5.- Hezkuntza Eskaintzaren zabalpena eta matrikulazioa.

#### 4.- IKASTETXEAREN KONPROMEZUAK.

## 1.- AURKEZPENA

### 1.1.- Ikastetxearen deskribapen fisikoa eta aipamen historikoa.

**JUAN ANTONIO MOGEL IKASTOLA** 1959an sortu eta ireki zen Eibarko Ikastola zazpi-zortzi haur eta andereño bat izan ziren protagonista Eibarko etxebizitza batean. Urteak pasatu ahala ikasle kopurua ugaldtu egin zen eta 1974an guraso talde batek Iturburu Kooperatiba sortu zuen ikastetxe berri bat eraikitzeko asmotan.

Ikastetxe berri hau Arrate bidean kokatu zuten, eta bertan OHOk klaseak ematen ziren, Haur Hezkuntza betidanik herrian bertan egon baita.

1994an Euskal Eskola Publikoaren Legearen ondorioz sare pribatu eta publikoaren artean aukeratu behar izan zuten ikastola guztiak; gureak publikoaren aldeko aukera egin zuen.

Gaur egun J. A. Mogel Ikastola fisikoki 3 ikastetxez osatuta dago:

Sansaburu eta Argatxa Haur Hezkuntzako eskolak dira eta Eibar herrian kokatuta daude, Lehen Hezkuntza egitera ikasleak, Arrate bidean kokatuta dagoen, Iturburura igotzen dira. J.A.Mogel Ikastolaren web orrian ([mogel.org](http://mogel.org)) aurkitzen da informazio osagarria.

Gure ikasleak bere ibilbide akademikoa Mogel Isasi BHI ikastetxean jarraitzen dute.

HH SANSABURU



HH ARGATXA



LH ITURBURU



→ DBH MOGEL ISASI



### 1.2.- J.A. Mogel Ikastolaren zeregina.

Euskal kultura, euskal izaera eta euskara eskaini, bultzatu eta sustatzen duen eskola. Euskalduna izanik, munduari irekita, eleaniztasuna bermatuko duena.

Beharrezko baliabideak erabiliz eta teknologia berrien erabilera bultzatuz umea bere osotasunean (sormena, irudimena, adimena, ikasteko gogoia) eta giza baloreetan (konpetitibitateari aurre egin, erantzukizuna, kritikotasuna, elkartasuna, aniztasuna, ingurugiroarekiko errespetua) hezitzen duena.

Gizartean txertatua, eskola komunitatea, ikasle, guraso, irakasle, langile, osatzen dugunon artean koordinatuta lan eginez eta herriko erakundeekin harremanetan egonez; tradizioak eta modernitatea uztartzen dituen eskola berritzailea.

Horretarako, honako lan ildoak jorratuko ditu:

1. Ikastolako partaide guztiok gure lana bete, elkarlana eta harremana sendotuz, errespetuan eta gardentasunean oinarritutako elkarbizitza landuz, denon dedikazioa, inplikazioa, konpromezua, motibazioa lortu, hasierako ilusioa mantenduz.
2. Ikasle euskaldunak hezi gu formatuz eta eredu izanez.
3. Eskolako partaide guztion formakuntza bultzatu, haurren alderdi onenak ateratzeko, gaitasun, emozio eta harreman egokienei erantzuten jakiteko.
4. Normaltasunez komunikatzeko gai diren ikasle eleanitzak lortzeko, teknologi berriak erabili, ohiko erak ahaztu gabe.
5. Praktikoak izanez, dauzkagun baliabide eta indarrak ezagutuz, gure proiektuaren lehentasunak zehaztu.
6. Aniztasunari erantzunez behar bereziak dituzten ikasleentzat laguntzak eta errekurtsioak dagozkien erakundeei eskatu eta umeei eskaini.
7. Eskola multikulturala lantzeko bertako eta beste lurraldeei buruzko ekintzak, erakusketak eta hitzaldiak antolatu.
8. Erakunde eta esparru anitzetik datozen proposamenetan parte hartu eta egiten duguna erakutsi eta plazaratu eibartarrei, bereziki.
9. Gizartearen aldaketetaz jabetuz eta premiak kontutan izanik, ahal den neurrian, erantzuna ematen saiatu.
10. Gure ingurumenaz jabetu, errespetatu eta hobetzen saiatu.

Etorkizun hurbilean, gure herrian, honelako nortasuna duen ikastola izateagatik, ezagutuak izan nahi dugu:

1. Euskalduna .euskera eta euskal kultura ardatz izanik, euskara maitatuz irakatsi eta erabiltzeagatik.
2. Eskola komunitate osoaren harremanak, elkarlana eta partaidetzagatik.
3. Integratzailea, anitza, irekia, askea, solidarioa izanez, errespetua emanez errespetuan hezituz; euskaldun sentitzeko gogoia eta harrotasuna ahalbideratzeagatik.
4. Ikasle eleanitz komunikatzaileak, ikertzaileak bai hizkuntzetan baita teknologia berrietan formatzeagatik.
5. Ingurumenarekiko erabilera egoki eta errespetuagatik.
6. Gizartearen aldaketetara egoki moldatzeagatik.
7. Haurrak, emozionalki orekatuak, inizatiba dunak, gaitasunetan garatuak eta errespetuzko baloreetan hezitzeagatik.
8. Beste esparru anitzei irekia, eta beraien beharra sentituz norbere nortasuna izateagatik
9. Praktikoak: helburu errealak definitu ,martxan jarri ,ebalatu , eta hobekuntzak proposatzen dituen ikastola izateagatik.

### 1.3. – Ikastetxearen komunikazio bideak:

- Zikloko bilerak, ikastetxeko bilerak, klaustroak
- Urteko asanblada
- OOG
- Gurasoen bilerak
- Web orria, e.maila eta telefonoa – faxa.

## 2.- KUDEAKETA SISTEMAREN IRISMENA. ESKEINITAKO ZERBITZUEN DESKRIBAPENA.

Eskuliburu honetan definitutako kalitate-kudeaketa sistemak, ondorengo hezkuntza-etapetan du eragina:

- Haur Hezkuntza (HH) (2-6 urte) → Urtxintza Proiektua
- Lehen Hezkuntza (LH) (6-12 urte) → Txanela Proiektua

## 3.- KUDEAKETA SISTEMAREN PROZESUAK.

### 3.1.- Ikastetxearen urteko plangintza.

Ikastetxearen Zeregina zehazteko eta berrikusteko; hala nola, Ikastetxeko Urteko Plangintzaren osaketa, jarraipena, balorazioa eta errebisioa egiteko, PR0101 prozedura dago.

Ikastetxearen Zereginaren ondorioz Ikastetxearen urteko plangintza dokumentua sortzen da.

Plana egiteko iturri nagusiak dira:

- Aurreko urteko planaren memoria.
- Ikastetxearen Zeregina.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak helarazitako informazioa.

**PLAN ESTRATEJIKOA, URTEKO PLANA.  
IRAKASKUNTZA IKASKUNTZA PROZESOA.**

Plan estratejiko eta Urteko Plana

PR 0101



Hezkuntza Eskaintza

PR 0102



Hezkuntza Eskaintzaren zabalpena eta matrikulazioa.

PR0103



Harrera

PR0201



Programazioa

PR 0202



Gelako jarduerak

PR 0203



Ebaluazioa

PR 0204



Tutoretza

PR0205

### 3.2.- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen deskribapena eta kontrola.

- Kurtsoen garapenerako ikaskuntza-irakaskuntza prozesoa planifikatu egingo da baldintza kontrolatuetan garatzen dela ziurtatzeko. Aurreko fluxu-diagramaren arabera garatuko da, bertan, oinarrizko prozedurak identifikatzen direlarik.

Plan estratejiko – Urteko Plana eta Irakaskuntza-ikaskuntza-prozesuaren barruan hainbat azpiprozesu daude:

#### **Plan estratejiko eta Urteko Plana**

- Plan estratejiko eta Urteko Plana
- Hezkuntza eskaintza
- Hezkuntza eskaintzaren zabalpena eta matrikulazioa

#### **Ikaskuntza- irakaskuntza prozesoa**

- Harrera
- Programazioa
- Gelako jarduerak
- Ebaluazioa
- Tutoretza

Azpiprozesu bakoitzaren prozedimentuetan zerbitzua nola ematen den (kurtsoa nola ematen den) deskribatzen da, honako hauek kontutan izanik:

- Gauzatu beharreko jarduerak.
- Erabili beharreko adierazleak
- Onartzeko irizpideak, neurgarriak diren baldintza gisa adierazita
- Jardueren arduradunak
- Beharrezko baliabideak
- Jardueren denbora-epeak

Azpiprozesuan gainbegiratzeko eta kontrolatzeko, kontrol-planak (KP0201, KP0202, KP0203, KP0204, KP0205) prestatzen dira, eta horietan zehaztutakoaren betetze-maila kontrolatzeko irizpideak definituko dira.

Kontrol-planetan hau sartuko da bereziki:

- Adierazleak.
- Onarpen-irizpideak eta zein unitatetan neurtuko diren.
- Kontrolen maiztasunak.
- Kontrolerako bitartekoak eta metodoak.
- Emaizak erregistratzeko dokumentuak.
- Kontrolaren arduraduna.

### **3.3.- Ez adostasunen kudeaketa.**

Ikastetxeak, nahita sortutako zerbitzu ez-adostuak ez dituela sortzen ziurtatzen du; horretarako, PR0301 prozeduran finkatutakoa kontuan hartuta egiten da kontrola. Ikastetxeak ez-adostasunen arrazoiak aztertzen ditu, eta jarduerak zehazten eta ezartzen ditu berriro gerta ez daitezenean.

Ez adostasunen kudeaketarako prozeduran (PR0301), zuzentze- eta prebentzio-jarduerekin nola jokatu deskribatzen da; ondoren definitutako oinarritzko ildoak jasotzen ditu:

- Identifikatutako ez-adostasunak berrikusi egiten dira eta zuzentze- eta prebentzio-jarduerak martxan jartzeko beharra ebaluatzen eta zehazten da.
- Zuzentze- eta prebentzio-jarduerak martxan jartzen dira, ez adostasunaren zergatiak tratatzeko eta berriro ez gertatzeko.
- Ez-adostasunen arrazoiak ezabatzeko martxan jarritako zuzentze- eta prebentzio-jarduerak antzemandako arazoaren tamainaren eta ekar ditzakeen arriskuen arabera dira.
- Arrazoen analisia egin eta zuzentze- eta prebentzio-jarduerak finkatu behar dituztenen partaidetza sustatzen da.
- Zuzentze- eta prebentzio-jardueren aplikatzearen ondoriozko aldaketak kalitate-kudeaketa sistemaren dokumentazioan sartzen dira.
- Zuzentze- eta prebentzio-jarduerak gauzatu direla eta eraginkorrak izan direla ziurtatzeko jarraipena egiten da.
- Hartutako jardueren emaitzak erregistratu egiten dira.

Ez adostasuna tratatu ondoren, egiaztatu egin behar da prozesua betekizunekin bat datorrela egiaztatzeko.

### **3.4.- Dokumentazioaren eta erregistroen kudeaketa.**

Kalitate-kudeaketa sistemak eskatutako dokumentazioaren kontrola PR0401 prozeduran finkatutakoaren arabera egiten da. Prozedura horretan, ondoren definitutako oinarritzko ildoak aipatzen dira:

- Beharrezkoa denean dokumentuak berrikusi eta onartu egiten dituzte baimendutako pertsonak, banatzen hasi aurretik.
  - Baliozkoak ez diren edo zaharkiturik dauden dokumentuak dokumentu berria edo bertsio berrikusia onartu orduko baztertzen dira. Dokumentuak banatzeko sistema zehaztu da, eta, horren bidez, bertsio zaharkituak erabiltzea galarazten da.
- Hontarako:

- Indarrean dauden dokumentuen bertsioen aurkibideak eta zerrendak egin dira.
  - Funtsezko eragiketak gauzatzen diren puntu guztietan dokumentuaren azken bertsioa sarean izango du dagokionak.
- Erregistroak identifikatzeko, jasotzeko, babesteko, berreskuratzeko, zenbat denbora jaso erabakitzeko eta antolatzeko irizpideak definitu dira.
  - Erregistroak irakurterrazak dira eta erraz berreskuratzeko moduan jasotzen eta kontserbatzen dira, ez hondatzeko, kaltetzeko edo galtzeko instalazio egokietan.
  - Dokumentu zaharkituak eta erregistroak 3 urtez jasotzen dira gutxienez. Kalitatearen Kudeaketa Eskuliburuaren bertsio zaharkituak epe jakinik gabe jasotzen dira.
  - Erregistroak euskarri informatikoan aurkez daitezke. Hauek eskuratzea mugatzeko pasa-hitzak erabiltzen dira, birusen aurkako neurriak ezarri dira eta segurtasun kopiak egiten dira.

#### **4.- IKASTETXEAREN KONPROMISOAK**

1.- Familia, ikasle eta irakasle berrientzako Urteroko Harrera Programa bat dauka Ikastetxeak. Programa horretan markatuta dauden harrera ekintzak eta bete beharreko materialak eperako egingo dira.

2.- Irakasle berri bat ikastetxera iristen den unean Irakasle koadernoak emango zaio. Bertan, berak irakatsi behar dituen gaien inguruko eta ikastetxeak onartutako Programaketa , Ebaluazio akordioak eta eguneroko dinamikarako beharko dituen materialak egongo dira.

3.- Harrera programaren inguruko familien gogobetetasun maila 6tik gora izango da, 1-10 bitarteko eskalan.

4.-Hiruhilabete bakoitzeko amaieran, arlo bakoitzeko programazioaren azterketa egingo da, eta bertan, hurrengo urteari begira programaketan egin beharreko aldaketak proposatuko dira, hiruhilabete horretan zehar izandako esperientziak kontutan hartuta.

5.-Ikasturteko programazioak iraileko lehenengo asterako eginda egongo dira.

6.-Arlo bakoitzeko planifikazioak, Unitate didaktikoka edota beste denboralizazioaren bat erabiliz, egingo dira. Horien helburua, programazioaren jarraipen egokia egin eta gela jardueren kontrola, txukun eramatea da.



7.- Aurreikusitako programaketaren % 95 gutxienez gela jardueretan gauzatuko da.

8.- Gainditutakoak gutxienez % 85 izango dira ziklo bukaeran, neurketa honetan ez ditugu sartuko ACI duten ikasleak eta ikasle berantiarrak .

9.- Ikastetxeak Ebaluazio akordioak ditu. Ebaluazio akordio horiek errespetatuz ikasleak ebaluatzerara konprometitzen da eta urtero akordio horiek aztertu eta, horrela badagokio, aldatzera, izandako esperientzia kontuan hartuaz.

10.- Kurtso hasieran tutore bakoitzak ikaslearen historiala izango du, beharrezkoa denean bere jarraipen egokia egin ahal izan dezan. Historial hauen konfidentzialtasuna ziurtatuko da.

11.- Beharrezkotzat hartzen diren kasuentzat programaketa egokituak egongo dira. Programaketa hauek Laguntza taldearen ardurapean, jarraipen eta ebaluaketa bereziak izango dituzte ikasturtean zehar.

12.- Ikasturteko Plangintzan ondorengo 3 atal hauen agerpena eta garapena zehaztuko da. Arrazoi desberdinengatik atal hauetako bat agertuko ez balitz urteren baten, hurrengo urtean atal hori indartzeko konpromisoa hartzen dugu.

- **Euskara eta euskal kultura:** 4 urtetik behin ikastolak, irakasleen formaziorako, arlo hau lantzeko ikastaro bat antolatuko du.
- **Gure inguru hurbilaren ezagutza eta aprobetxamendua:** Ikasturte bakoitzean ekintza didaktiko bat egingo dugu gure inguru hurbila baloratzen ikasi dezaten ikasleak.
- **Teknologia berriak:** Ikasturte bakoitzean irakasleen interesarekin lotutako formazio ikastaro bat antolatuko da.